

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

**Hasierako onespena ematea zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzari, kultura eta kirol zerbitzu eta jardueri buruzkoari**

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 12an eta martxoaren 11n egindako ohiko bilkuretan, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerga ordenantza honen aldaketari:

– Zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantza, kultura eta kirol zerbitzu eta jardueri buruzkoa.

Jendaurrean jartzen da interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurreko epea igarotakoan.

Dulantzi, 2020ko martxoaren 12a

*Alkatea*

**JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA**